

Enpresariekin Topaketak Oñatin eta Bidasoan.

2012/11/05

Gure ikasleek goi mailako enpresarien esperientziak aurrez-aurre ezagutu ditzaten eta enpresari hauekin hitzegiteko eta konpartitzeko aukera izan dezaten, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan (EAZG) enpresa munduko hainbat pertsonalitate ezberdinen hitzaldiak antolatu dira kurtso ezberdinetan.

Ideia berri honekin gure ikasketak enpresa mundura oraindik gehiago inguratzea bilatzen da, kasu errealak eta benetako esperientzietatik ikasteko asmoz, beti ere fakultateak enpresekin duen erlazio estua oinarritzat izanda. Topaketa hauei hasiera emanez bi enpresari haundi izango ditugu gure artean. Urrian, Jose Antonio Garrido hurbildu da Enpresagintzara, garai batetan Iberdrolako Zuzendari Orokorra eta Gamesako presidente izana, gaur egunean Bilbao Metropoli 30ko presidentea.

Bere ponentziaren izenburua "La necesidad de profesionales para el desarrollo de la actividad económica" izan da. Azaroan Antonio Cancelo izango dugu gure artean, Mondragon Korporazioko Presidente Ohia, bere hitzaldia "Qué es ser un empresario?" izango delarik.

Hitzaldi hauek bi campusetan ikasle guztiei irekita izango dira.

